

Laborategi berritzaileak, etorkizuneko elikadura-sistema eraldatzeko

FoodSHIFT2030 Europako proiektu bat da. Herritarrek sustatuta, Europako elikadura-sistemaren eraldaketa handinahia gauzatuko du, etorkizunean karbono-kopuru txikiko elikadura-zirkular bat lortzera bideratua. Horrek dietak aldaraziko lituzke: haragi gutxiago eta barazki gehiago kontsumitzea.


Aurrekariak

FoodSHIFT2030 proiektua Europako Batzordearen H2020 programak finantzatzen du (7,5 M €), eta Europar Batasuneko I+b-ko *Food 2030* politiken esparruan jaio da, Nazio Batuen *Garapen Jasangarriko Helburuekin*(GJH) duen konpromisoaren baitan.

Deskripzioa

Proiektu horren partzuergoa Europako 11 herrialdeetako 31 bazkidek osatzen dute. Diziplina anitzeko taldea da, 7 udalerrri, 11 enpresa txiki eta ertain, 6 GKE eta 6 ikerketa-institutu biltzen dituena. Kopenhageko Unibertsitatea da koordinatzailea.

Elikadura-sistemaren eraldaketa azkarra lortuko da, **gaur egungo elikadura-sistemen berrikuntza konbinatzeko, zabaltzeko eta biderkatzeko mekanismo eraginkorrak sortuz, honako hauen bidez: gizarteak sustatutako bederatzi Laborategi Bizkortzaile eta Europa osoan banatutako herri eta eskualdeetako elikadura-sistemen zentro emergenteetan ezarritako hogeita zazpi Laborategi Trebatzaile.**



(<https://investigacion.elika.eus/wp-content/uploads/sites/5/2019/12/9-labs.jpg>)

Etorkizuna

FoodSHIFT2030 proiektutik haratago, elurrezko bola baten efektua sortu nahi da: hasteko, ezagutza partekatu nahi da elikadura-sistemaren eraldaketa ahalbidetzeko lanean ari diren herri eta eskualdeetako hainbat sareren bidez; eta, ondoren, Europako beste herrialde, eskualde eta herri batzuetan jarriko dira Laborategi Trebatzaileak.

Proiektua 2020ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

Food System Hubs Innovating towards Fast Transition by 2030
(<https://cordis.europa.eu/project/rcn/224840/factsheet/es>)

FoodSHIFT2030 summary (<http://foodshift2030.eu/wp-content/uploads/2019/10/FoodSHIFT2030-project-overview.pdf>)